

UPV-EHU. Erizaintza Eskola. Leioa

# Osasun Mentalerako Erizaintza

Ikaslearen gidaliburua

Marta Arrue Mauleon  
2013-2014

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. IKASKUNTZAKO EMAITZAK ERDIESTEIA .....	4
3. AURRE BALDINTZAK .....	5
4. IRAKASGAIAREN AZALPEN LABURRA ETA PROGRAMA.....	6
5. METODOLOGIA ETA KRONOGRAMA.....	7
6. BIBLIOGRAFIA .....	8

## 1. SARRERA

Osasun Mentalerako Erizaintza irakasgaiaren irakaskuntza-programak erantzuna eman nahi die erizaintzaren jardun profesionalan gaur egun sortu diren eskakizun berriei. Horretarako, garrantzi handia eskaintzen dio ingurune profesionalan oso aintzat hartzen diren zeharkako gaitasun batzuen garapenari (plangintza, komunikatzeko gaitasuna eta pentsamendu kritikoa) (CHEERS, 2003)<sup>1</sup>.

Prestakuntzarako programa guztien antzera, hemen aurkeztuta datorren programaren **helburu orokorra** erizaintzako etorkizuneko profesionalak prestatzea da, eta, horretarako, buruko osasunaren gaineko berariazko ezagutzak eskaintzea eta gaitasun espezifikoen nahiz orokorren garapena bermatzea. Gaitasun horiek zuzenean esku hartuta bakarrik hobetzen direnez (Terrón, Velasco eta García, 2012)<sup>2</sup>, programa honek gaitasun horietan zuzenean esku hartzeko diseinatuta dauden prestakuntza-jarduera batzuk eskaintzen ditu.

Hona hemen “Ikaslearen gidaliburua”. Bertan, azalduta datoz irakasgaiaren landuko diren alderdiak –edukiak, lan-egitasmoa eta ebaluazio-irizpideak, besteak beste–, eta irakasgaiari ahalik eta probetxu handien ateratzeko beharrezkoa den informazio guztia ere jasota dago. Lehenengo, irakasgaiaren datu orokorrak aipatuko dira. Bigarren, gaitasunak definituko dira, eta irakaskuntza-metodologiaren eta jardueren deskribapen zehatza egingo da. Azkenik, ebaluazioari helduko zaio.

---

<sup>1</sup> CHEERS (2003). *Careers after Higher Education: a European Research Study*. Recuperado el 2013 de marzo, de Higher Education and Graduate Employment in Europe – European Graduate Survey: [http://www.uni-kassel.de/wz1/TSEREGS/publi\\_e.htm](http://www.uni-kassel.de/wz1/TSEREGS/publi_e.htm)

<sup>2</sup> Terrón, M.J., Velasco, P. y García, M.J. (2012). *Guía para el diseño de recursos docentes que fomenten el desarrollo y evaluación de las competencias transversales en educación*. Málaga: Fundación Vértice.

## 2. IKASKUNTZAKO EMAITZAK ERDIESTEA

Irakasgaia landu ostean ikaskuntzako emaitza hauek erdietsiko dituzte ikasleek:

1. Norbanakoen, familien edo taldeen buru-osasunean eragina duten barruko eta kanpoko faktoreak identifikatzea eta aztertzea.
2. Pertsonaren egoeraren, osasun-arazoen eta garapen-fasearen arabera, buru-asaldura garrantzitsuenak ezagutzea eta, erizaintzako zainketak egitea, osasun-arreta integralean oinarrituta.
3. Gaixoekin, familiarekin, gizarte-taldeekin eta lankideekin komunikazio eraginkorra ezartzea eta buru osasunerako hezkuntza sustatzea.
4. Zainketa integral egokiak egin ahal izateko, gaitasun kritikoa garatzea.
5. Autoezagutzak erizaintza zainketa prozesuan duen garrantziaz ohartzea.

### **3. AURRE BALDINTZAK**

Osasun Mentalerako Erizaintza irakasgaia OCW-n egiteko ez dago aurre baldintzarik.

## 4. IRAKASGAIAREN AZALPEN LABURRA ETA PROGRAMA

*Osasun mentalerako erizaintza* irakasgaiaren programak honako hauek lantzen ditu: psikiatriako nosologia, buruko fenomeno oinarriko nahasmenduak, erizaintzako arloari begirako hurbilketa, arlo horren ebaluazioa eta arlo horri dagozkion zaintzak. Psikiatriako Erizaintza Osasun Zientzien adar bat da, eta buruko gaixotasunen azterketaz, prebentzioaz, ebaluazioaz, zaintzez eta errehabilitazioaz arduratzen da. Buruko gaixotasuntzat psikiatriako berariazko gaixotasunak nahiz beste patologia psikiko batzuk hartzen ditu, Buruko Osasuna izeneko kontzeptu zabalago baten baitan. Psikiatriako gaixoak aurreiritziz inguratuta egon dira historikoki, beste patologia batzuetako gaixoak ez bezala; Psikiatriako Erizaintzak zein Buruko Osasunak azken horien maila berean kokatzen dituzte psikiatriako gaixoak.

Hori guztia landu ahal izateko, 1. taulan irakasgaiaren programa eta gaien aurkibidea ageri dira:

1. taula. *Osasun mentalerako erizaintza* gaiaren aurkibidea

Gaia	Programa
1. gaia	Sarrera. Kontzeptu nagusiak. Psikiatriako nosologia. Harreman terapeutikoa. Krisia
2. gaia	Anorexia eta bulimia. Erizaintzako zaintzak.
3. gaia	Sexu-asaldurak. Patologiak eta erizaintzako zaintzak.
4. gaia	Loarekin lotutako nahasmenduak. Erizaintzako zaintzak.
5. gaia	Bulkaden kontrolaren nahasmenduak. Patologiak eta erizaintzako zaintzak.
6. gaia	Antsietateagatiko nahasmenduak. Patologiak eta erizaintzako zaintzak.
7. gaia	Afektibitate-nahasmenduak. Patologiak eta erizaintzako zaintzak.
8. gaia	Eskizofreniak. Patologiak eta erizaintzako zaintzak.
9. gaia	Psikiatriako larrialdiak. Erizaintzako zaintzak.
10. gaia	Tratamenduak.

*Osasun Mentalerako Erizaintza* irakasgaiaren ikasleek irakaskuntza-modalitate bakoitza osatzeko estimatzen diren ordu kopuru banaketa 2. taulan ageri da.

2. taula. Ikasleen lan-orduen banaketa *Osasun mentalerako erizaintza* irakasgaiaren

	Eduki teorikoa	Test galderak	Pentsamendu kritikorako ariketak	Guztira
<b>Ez-presentzialak</b>	40	2	13	55

Ikasle bakoitzak bere gain izango du zehaztutako alderdi guztiak lantzeko ardura, eta diseinatutako jarduera guztiak erabili beharko ditu horretarako.

## 5. METODOLOGIA ETA KRONOGRAMA

Gai bakoitza arazorik gabe jarraitu ahal izateko, hamar gaiak egitura bera jarraitzen dute: 1) Ikasketa-helburuak; 2) Autozagutza garatzeko ariketa bat; 3) Edukien garapena eta 4) Erizaintzaren zainketak.

Gaiari ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko, gai bakoitza bost fasetan lantzea gomendatzen da: 1º Eskuragarri dauden power pointak eta bibliografia erabiliz, edukiak ikastea eta erizaintzaren-esku hartzeak garatzea; 2º Pentsamendu kritikorako ariketa osatzea eta 3º test azterketa burutzea.

Hona hemen fase bakoitzaren deskribapen laburra:

1. Lehenengo pausoa, ikasketa-helburuak ongi irakurtzea da. Horrek, ikasleari gaien landuko denaren ideia orokor bat emango dio.

2. Bigarren pausoa, eskuragarri dagoen bibliografia eta eskemak erabiliz, gai bakoitzeko edukiak lantzea izango da. Ikaslearen esku geldituko da gaien zenbat sakontzen duenaren erabakia. Zalantzarik gabe, erizaintzaren esku-hartzeak garatzeko momentuan, lagungarria egingo zaio teoriaren ezagutzan sakondu izana.

Irakasgaiak beste ikuspuntu batetik eta modu atsegingarri batean sakondu ahal izateko, bibliografia zerrendan (6. atala) aurkitzen diren eleberrri eta saioak irakurtzea gomendagarria da.

Fase honetan, ikasleak gaitasun hauek garatzea lortu nahi da: iturriak behar bezala hautatzeko gaitasuna, informazio garrantzitsua aurkitzekoa eta informazio hori erabakiak hartzean erabilgarri izan dadin laburtzekoa.

3. Hirugarren pausoa, autoezagutza garatzeko prestatu den galdera (gai bakoitzeko bat), idatziz erantzun dio ikasleak. Ikasleek auto-ezagutza prozesuan sakontzea lortu nahi da.

3. Azkenik, ezagupena, ulermena eta aplikazioa ebaluatzeko, ikasle bakoitzak gaiaren funtsezko ideiei buruzko test azterketa labur bat egin beharko du. Azterketa horren bidez, ikasleak landutako gaien oinarriko kontzeptuak barneratu dituen egiaztatu ahal izango du.

**Kronograma:** Irakasgaia lauhilabeteko batean ematen da. 10 astetan zehar gaiak prestatzen dira, material osagarriarekin batera. Gai bakoitza aste batean lantzeko prestatuta daude (5 ordu gai bakoitza). Gelditzen diren beste 5 orduak, gaiaren funtsezko ideiei buruzko test azterketak egiteko dira.

## 6. BIBLIOGRAFIA

Gai bakoitza lantzeko ikasleak gutxienez kontsultatu beharko duen bibliografia ondokoa izango da:

- VVAA (2012). *Manual CTO de Enfermería*. Madrid: CTO.

Ikasleak informazio gehiago beharko balu, UPV/EHUko liburutegian ondoko manualak ere eskuratzeko aukera izango du. Guzti honetaz gain, ikasleak osasun mentaleko gai desberdinetan modu atsegingarri batean sakondu ahal izateko eleberri eta saiakera desberdinak eskura ditzake.

Oinarrizko bibliografia:

- Cibanal, L.M. (2010). *Técnicas de comunicación y relación de ayuda en ciencias de la salud*. Madril: Elsevier Mosby.
- Eby, L. (2010). *Cuidados de enfermería en salud mental*. PEARSON argitaletxea.
- Fornés Vives, J. (2012). *Enfermería de Salud Mental y Psiquiátrica. Valoración y cuidados*. Madril: Panamericana.
- Fornés Vives, J. (2005). *Enfermería de salud mental y psiquiátrica: planes de cuidados*. Madril: Editorial Médica Panamericana.
- Haranburu, M. eta Sansinenea, E. (2004). *Osasunaren psikologia*. Bilbo: UPV-EHU.
- Novel, G., Lluch, M. T. eta Miguel, M. D. (2005). *Enfermería psicosocial y salud mental*. Bartzelona: Masson.
- Ortiz de Zárate, A. (2010). *Guías de cuidados de enfermería en salud mental. Vol. 2. Trastorno mental grave de larga evolución*. Elsevier argitaletxea.
- Ortiz de Zárate, A. (2010). *Guías de cuidados de enfermería en salud mental. Vol 4. Trastornos psicóticos*. Elsevier argitaletxea.
- Rebraca, L. (2007). *Enfermería psiquiátrica y de Salud Mental. Conceptos básicos*. Madril: McGraw-Hill Interamericana.
- Rigol, C. eta Ugalde, M. (2006). *Enfermería de salud mental y psiquiátrica*. Bartzelona: Masson.
- Stern, T. A., Herman, J. B. eta Slavin, P. L. (2005). *Psiquiatría en la consulta de Atención Primaria: Guía Práctica*. Madril: McGraw-Hill Interamericana.
- Stuart, G.W. eta Laraia, M.T. (2006). *Enfermería psiquiátrica. Principios y práctica*. Madril: Elsevier Mosby.



- Tazón, M. P., García, J., Aseguinolaza, L. (2002). *Relación y comunicación*. Madril: Difusión Avances de Enfermería.
- Townsend, M. C. (2011). *Fundamentos de enfermería en psiquiatría*. Mexiko: McGraw-Hill.
- López-Ibor, A., Juan J. & Valdés Miyar, M. (dir.) (2013), DSM-V. Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales. Barcelona: Masson.

Eleberri eta saiakerak:

- Albom, M. (2000). *Martes con mi viejo profesor*. Madrid: MAEVA.
- Aranzabal, J. (2004). *Medikuak esan dit minbizia dudala*. Donostia: Elkar.
- Cardinal, M. (2000). *Las palabras para decirlo*. Barcelona: Noguer.
- Estivill, E. (2012). *Que no te quiten el sueño. El Método Estivill para el insomnio de los adultos*. Barcelona: Planeta.
- Fernández Millán, J. M. y Buela-Casal, G. (2007). *Padres desesperados con hijos adolescentes*. Madrid: Pirámide.
- Fuertes, J.C. (2007). *¿Qué me pasa doctor?*. Barcelona: Debolsillo.
- Gavino, A. (2006). *Mi hijo tiene manías*. Madrid: Pirámide.
- Giordano, P. (2010). *La soledad de los números primos*. Barcelona: Salamandra.
- Greenberg, M. (2009). *Hacia el amanecer*. Barcelona: Seix Barral.
- Kübler-Ross, E. (1995). *La muerte: un amanecer*. Barcelona: Luciérnaga.
- Luca de Tena, T. (1979). *Los renglones torcidos de Dios*. Barcelona: Planeta.
- Marinoff, L. (2001). *Más Platón y menos Prozac*. Madrid: Suma de Letras.
- Méndez, F. X. (2003). *El niño miedoso*. Madrid: Pirámide.
- Mustapha, K. (1988). *Ponte enfermo y cállate*. Lasarte-Oria: Antza.
- Santandreu, R. (2011). *El arte de no amargarse la vida*. Barcelona: Espasa Libros.
- Vallejo-Nágera (1991). *Concierto para instrumentos desafinados*. Barcelona: Planeta.